

Traducción al Euskera de un capítulo de “El Quijote,,

BEDERATZIGAREN ATALKIA

Euskaldun zutiñak eta mantxar (Mancha'tar) bulardetsuak alkárekin egindako buruka arigarña amaitu ta azkentzea.

Ezpatak biluzi ta gorutz zituela utziak ditugu, gertari onen lenengo aldean, euskaldun kementsua ta *Don Quijote* aipatua, betean jozkerok gutxienez goitik beera uratu, erdibitu ta alegoría (alesagara = *granada*) bezelaxe iriki bear zituen zartateko izugarri bana alkári emateko tankeraz; ta ora bertan eten eta ebaki, lañean, edeski (kondaira) mamitsu au, azkena nora bila diteken egileak adirazten ez digularik.

Naigabe aundia eman zidan orek; ipui mardul onen osaria arkitzeko alako bide gaitza egokitzen zala gogoratuak, atsekabe biurazten baitzidan ain gutxi irakuñaren atsegiña. Ez ote-zuan, ba, ura añako zaldun iaioak, egundo ikusi ez bezelako egiñandien idaztea beregain artutako jakintsurik?... Eziñekoa nerizkion, ta oitura onei eztagokiona; ainbeste-gabekorik ezpaitzan iñor, zorigerta-bila omen dabilzan zaldun ibilkari guzien artean. Auek izaten baitzituen jakintsu bana, ta bina, artarakoxeak; eta ez, gero, solik aien egiñak idatzi, baita ere, ordea, umekeri ta gogapenik apufeneen béri eman bear izaten zizuenak, naiz ezkutuzkoenak izan. Beraz, *Platir'ek-eta* gañezka, ta gurea añako zalduna, gabe?... Baldinbaitez: orein zorimotzekoa ez al-zan izango!... Ala ba, edeski (kondaira) bikain au éren-elbafi gelditua ezin nuan etsi; ta edozeren jale ta apurgin dan aldi biurari ezartzen nion érua, berak estalia ala agortua bear zuala-ta.

Bestalde, beriz, *Don Quijote'renen* artean «Maitérezko galena» ta «*Hehares'ko* emeder ta artzaiak» izeneko idazti (liburu) oraintsukoak arkitu izan baitziran, bazirudidan aren gertaritza ere béria bear zuala, ta, idatzia ez egonenean, baziraukela, alegia, éritar ta

bilaldekoen gogoetan. Ustekari órek urduri nindarabilan, ta gure españiar ospetsuaren gorabera oro argi ta garbi ikasteko zaletua. Berori baita, izan-ere, *Mancha'ko* zalduntzaren argi bai eredia (isilua); ta gure aro ta garai negargañi ontan iskilu (arma) bidakarietik lanbide ta aritzeari lenbiziko emana, irañak aspertu, andre alargunei sorosi, baita beren zigor ta zaldi otzanekin, neskustasuna soin-soin zuelarik, mendirik-mendi ta ibaíez-ibar ibili oi-ziralako neskaak babespetuaz ere; onakorik izaten baitzenduan iñoizko egunetan, enetxoa gaurik aterpean-gabeko larogei urteren buruan, erdirazi zuan ama bezin oxo lurperatze'aal-zuena, non-ta gizazital, ala aizkora ta txanodun arlote, edo-ta eráldoi aunditzáren batek indaréz galdu etzuen. Oiek eta beste itzalbide askoengatik, ba, gorapen oroigari-etengabeak dagozkiola-ta nago gure *Quijote* iaukal oni; ta neroni ere ezin lezazkidake uka, gertari atseginkor onen azkena bila-bearaz ibili ditudan neke ta ernaitasunaren sari. Alabaña, etsirik nago gizadiak ez lukela ura adi-irakurtzeak eman ditzaken ia bi ordu beteko jolasarte ez gozoaldirik, Goikoa, zoria ta abagunea lagun izan ezpa'nitu. Ona nola izan zan nere arkikundea:

Beñola, *Toledo'ko* dendari-kalean nenbñela, badator mutil-koskor bat, sedari bati idazpilo ta orí zaar batzuek saltzeko ustean. Irakurizalea nazute ni, naiz kaleko paper uratuak izan; eta ala, nere eraspén oríeri burua uzten niola, mutilak salgai zituan idatsorta aietarik bat artu det, eta bai bereala antz-eman ere arabierazko idazkeraz beltzitua zegoala. Ofenbestean ezagutu-aren, ezpaineikian ordea irakurtzeko ainbat, asi naiz arutz-onuntz begira, artarako gai ziteken mairuzko (*morisco*) gazteldunen bat iñondik agertzen ote-zan. Etzan lan gaitza izan alako adiratzalerik arkitzea, elerik obe bai zaaragoarenik bear izanda ere idoroko al-nuan-ta. Zoriak, ba, egokitu zidan bat. Adirazi diot nere naia, ta ofisorta eskuetan ipiñi ere bai. Zabaldu zuan erditik, eta, apur bat irakurí-ondorean, páfeak irten dio. Nik, ea zeri egiten zion: berak beriz, idaztiak oarbidez ertzean zekáren zerbaitek zeragiola. Zer zan esateko diotsat, eta berak, páreari eusteka:

—Ementxe ertzean, esan bezela—erantzun zidan-auxe dezu idatzia: «Edeski ontan ainbeste bider aitaturako *Toboso'ko Dulcinea* dalakoak, *Mancha* osoan beste emakumerik ez-bezelako eskua ornen zuan, noski, txería gatzatzen».

Añitu ta miretsi nintzan ni «*Toboso'ko Dulcinea*» entzunda, somatu bainuan bereala orí-mordo aiek *Don Quijote'ren* goraberak, noski, zekarzkítela. Uste órek eraginda, iradu-arazi det mairuzkoa lenbait-

len asiera irakufi zezadan. Ta ala egin ere: arabiera bat-batean gazte-lerazten zuala, auxe ornen-ziola adirazi zidan: «*Mancha'ko Don Quijote'ren* gertariak, *Cide Hamete Benengeli* edeslari arabiafak idatzita». Zogia bear-izan nuan oratik, idazti-izenburuaren entzunak eman zidan poza estaltzeko; ta sedariari bideak ebakiaz, erosi egin niozkan agiri ta orisorta guztiak mutil-koskořari, ereal-erdi batean. Seitik gora opa-zezazkion bere buruari, ta jaso ere egite'aal-zituan, nere zalearen aundia igertze-alako zolia ba'litz... Aldendu giñan gero, mairuzkoa ta biok, Eliza Nagusiko atarpetik bařena, ta eska nion, alegia, idatsorta aietarik *Don Quijote'rekiko* oro, ezer kendu ez erantsi-gabe, gazteleraztu zezazkidala, nai-besteko saria izango zuala-ta. Ařoa bi maats-legor ta zara bete (bi anega) garien ordain, ongi, zintzoro ta aguro-askorik itzultzeko itza eman zidan. Nik ordea, arloa erosotzearın, ta eskutik igesi etzezakidan alako arkikari edera, nerera ekaři-arazi nuan, eta bertan, ilabete-t'erdi luzetxoan, itzulia zuan oro, emen ipiñiko dedan bezelaxe.

Berbereki antzetzua zegoan, lenengo ofi-sortan, *Don Quijote* ta euskaldunaren arteko eraso, edestiak dion bezelakoxe egoeran biok: ezpatak gorutz, eta beren buruak batak besaburniaz besteak burkopean estaltzen zituela. Biziro ongi euskaldunaren mando emea ere, ezagun baitzuan ufutira eraenekoa zala. Euskaldunaren oñean izen auxe zegoan idatzita: «Azpeiti'ko *Don Sancho*»— ala zeritzalako, noski—; *Rocinante'pean*, beřiz, beste au: «*Don Quijote*». Bai ařigarıro egiña *Rocinante* dalako ořen irudia ere: aren luzeak-etenbeařa, aren uřia ta meetasuna, aren bizkařezur-utsa, aren idorberi etsia!...; agiri-asko ezpa-zerakusan ark, zamaritiko izen ori oartasun aundiz ta ezin egokiago jařia zuala! ... *Sancho Panza* zegokion aldamenean, astoa estekatik zuala, ta azpian beste idazkun au: «*Sancho Zancas*», au da, «*Sancho Zango*», zořořo-aundi, soingefi-motz eta anka-luzea baitzan, mařezkiak (irudiak) zerakusanez; ta ofetxengatik nonbait «Zilbor» ta «Zangor» eritzi-izana, edestiak ezizen biokaz izendatzen baitu, aldizka. Oar zitekean uxkeri bat edo beste geiago; oro, baña, ajola txikikoa gertariaren egitasunari buruz. Ta edeski txarık ez, egiazkoa izan-ezkeru.

Onako oni ortaz akatsik atera aal-ba'lezaio, egile arabiafa izatea baizik ez diteke, enda artakoak berez-berezkoa baitue gezurtiak izatea. Ala ba, ta ain etsaiak ditugunezkeroz, obeto sinistu diteke onako au motz gelditua, egiari buruz, luzeegi aitortua baño. Ta esango nuke ala danik; bestela, ořein zaldun bikařaren aldeko gorapenetan eskua zabaldu bear ta zabaltze'aal-lukelarik, nola ixilpean

beraizik laga ote-dituan irudi?... Txarki egiña baña, ta txarkiago asmatua: edeslariak zeaztasun bai egiaren zale, ta batere aldekerigabea bear dualako, ta ez irabazkizunak ala beldurak, gofotoak ala lerak egi-bidetik okerárazialakoa; ama baitu Egiak, aldiaren leikide, eginkarien ontzi, leenaren zĩñaldari (lekuko), egungo ikasgaisuurbidea ta etorkizunerako oartzalẽ dan Edestia. Onako nere ontan, atsegiñenean gura-izan-beste arkitu ditekela badakit: eta zerbaiten onik-gabea ba'litz ere, ez gaiaren ezerezaz idazle zakufaren eruz baizik izate'aal-dalakoan nago. Dana dala, bigáren zatia, itzulkiari naráikiola, onela asten zan:

Ezpata zorótzak gora jasorik zirala, bazirudian ortze-lúrei (zeru-lúrei) ta leizondoari (inperuari) zemaika zegozkiela gudukari bular-detsu-sumindu biok: alakoxeak, izan ere, tankera ta adorea zituen Euskaldun amofatuak egin zuan jotzera, lenbiziko; ta ezpata itzulikatu ezpa'litzaio bidean, ark emandako kankatekoa bazitekean, utsik, aski, bai guduka laría ta bai gure zaldunaren zoribear guztiak ere bertan azkentzeko: ainbestekoxe kemen-aseáraz eman ere egin baitzion... Ora ordea, zori onak, zeregin aundiagoetarako berezia zualako, arerioaren ezpatari biur-eragin... Artara, ezkeréko sorbalda atzitu aren, alderdi ura babesgabetua beste okerik etzuan izan, naiz-ta bidez buruburniki azitxoa ta belafi-erdia galdu...; ta agitz elbafia zan, ondakin guztiok ikaragáiro lúra jo zuenean.

Ene Jaungoiko maitea!... Nork orain bear bezela adirazi, bere burua tankera artan jaría ikusirik gure mantxafaren biotzean sortu zan amorua?... Au baño esan-bearik eztago: zutitu bériro oinburnien gañean, esku biekaz ezpatari biziagoki oratu, ta, sumiñik miñenaz, buru bai burko betean jotzen du euskalduna: ta oráko babeskalu bikain ori alperíkako izanik, mendia gañera ba'letorkio-ainbatetsu, ora gizajoa sudur-ao-belafietatik odola zeriola ta mandotik beera erori-bearka... Ta egingo zan, erori, noski, lepoari besoak lotu ezpa'lizkio. Alabaña, oñak burnietatik atera, gerora besoak lasatu ere egin zaizka; mandoak bériz, zartateko laríak izututa, ekin dio aitzintziketan zelaian barena, ta jauzka gutxien buruan nagusia lúfera botea zuan.

Begira zegokion arte-artetsu *Don Quijote*, ta lúra jotzen ikusi zuanean zaldi-gañetik jetxi, arin-arin bertaratu, ta, ezpata-mutura begietan ipintzen ziola, ematen egiteko (1) esan zion: lepoa moztuko

(1) «Ematen egin»: esakera au Gipuzkoa'ko zenbait erietan erabilia da (mutil-koskoñen burukaldietan beintzat) erderazko «rendirse» «darse por vencido» adirazirik. Bizkaierazko «txil» «txilak egin»-en antzekoa.

ziola, bestela. Euskalduna etzan gauza txitik egiteko, ainbesteraño baitzegoan nastua; ta beltzak ikusi-beařa zan, noski, *Don Quijote'ren* itsutuari ba-gagozkio, zalgurdiko andreak eldu ezpa'litzaizka, naigabe biziz auzi gořia ikusten egon-ondorean, eskar aunditzat mořoiari bizia uzteko arėn-otoika. *Don Quijote'k*, aobeteka ta ben-benik, onela egin zien:

—Egiazki, andre edeřok, egingo det nik poz-pozik zuek eskatua. Baldintza ta egiune baten ordain, ordea... Agintzea dit zaldun onek Toboso-urixkara joan ta Andre *Dulcinea* berdingabeari niketz aurkeztuko zaiola, aren mende ta zernaiepean bere burua jartzen dualarik.

Andre ikara-negartsuok, *Quijote* jaunak eskatzen zienaz oartzeka ta arako *Dulcinea* ura nor ziteken galdetu-gaberik, baietz esan zioten: mořoiak egingo zuala ark agindu oro.

—Itz oren siñespean, bada, nik eztiot gaitzik geiago egingo, ongi irabazia ba-dit ere.

LIZARDI'tar Xabier

Itzulpen ontan alegiņa egin da itzulgaiari aalik eta bertenetik jaraitzen; baņa, noizik-bein, zeatzegi itzuliak esaldia gogortu zezakenean, zertxobait, beraizik, aldatu izan da. Bestalde, gaztelerak ain berezko dituan esaldi luze alkar-lotu-erantsiak, nolabait moztu ta banatzera ekin diogu, euskerari obeto dagokion laburtasuna aal-neuřian jaretsi-eske. Azkenik, itz gaitz ala beři batzuen ondoan zaar-efezagoak ere adirazi dira, batera naiz besterako aukera egon dedin.